

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZAMBRANAKO UDALA

#### Behin betiko onestea helduen euskalduntzea sustatzeko dirulaguntzen ordenantza

Zambranako Udalbatzak, 2019ko abenduaren 19ko ohiko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen ordenantza berezi bat sortzea, udalerriko helduen euskalduntzea sustatzeko dirulaguntzak emateko.

Espedientea jendaurrean jartzeko arauzko epea igarota, eta haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, onetsi egin da, eta osorik argitaratuko da, indarrean jar dadin.

#### HELDUEN EUSKALDUNTZEA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA

##### HELDUEN EUSKALDUNTZEA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

#### 1. artikulua.— Xedea

Oinarri hauen xedea da 2018-2019ko ikasturtean euskara ikasi eta prestatzeko ikastaroetarako irizpideak eta dirulaguntzak arautzea.

#### 2. artikulua.— Aurrekontu kreditua eta dirulaguntzen zenbatekoa

Dirulaguntza horiek aitortzeko kreditu erabilgarria 1200 eurokoa da, 2020ko ekitaldiko aurrekontuen kargura.

#### 3. artikulua.— Onuradunak

Erroldatutako pertsona guztiek aurkeztu ahal izango dute eskabidea, eta onuradun izan, baldin eta:

Deialdia ALHAOn argitaratzen den unean Zambranan erroldatuta egonik, eta aurreko 12 hilabeteetan etenik gabe, dagokion eskola aldiaren euskara ikasketak egin dituztenak eta honako ezaugarri hauek dituztenak:

16 urte baino gehiago edukitzea.

– HABEk homologatutako euskaltegi publiko edo pribatuetan egindako ikastaroak.

– Ikasleak Añanako Kuadrillako euskaltegi edo talde homologatu batean egin beharko dituzten ikasketak. Ikasketengatik, lan arrazoiengatik, mailagatik edo ordutegiengatik ikasketak beste euskaltegi batean egin behar baditu, arrazoia adierazi beharko du ziurtagirian.

– Curriculum berriaren azpi-mailak (A0tik C1era): A1A0/A1A1/A2A1/A2A2/B1B1/B2B2/C1B2 eta C1C1.

– Diruz lagundu ahal izango dira bai urritik ekainera bitartean egindako urteko ikastaroak, bai uztailean, abuztuan eta irailean egindako ikastaro trinkoak eta barnetegiak. Barnetegiaren eta ikastaro trinkoen kasuan, matrikula gastuak bakarrik lagunduko dira diruz, eta inola ere ez egonaldiak, joan-etorriak eta bestelakoak.

Ez dira diruz lagunduko ikastetxeetan edo guraso elkarteetan ematen diren eskolaz kanpoko euskara jarduerak. Nolanahi ere, ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenak, salbu eta, dirulaguntzaren izaeragatik, araudi erregulatzailerak salbuesten baditu.

Erroldatzearen betekizuna ofiziosz egiaztatuko da.

**4. artikulua.— Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak**

1. Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2020ko otsailaren 20an bukatuko da. Eskabide normalizatuan aurkeztuko dira (l. eranskinaren arabera) Zambranako Udaleko Erregistro Orokorrean (Udaletxea kalea 2), 9: 00etatik 14: 00etara, astelehenetik ostiralera, eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako edozein bitartekoren bidez ere aurkeztu ahal izango dira.

2. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia, eta, hala badagokio, eskabidea sinatu duen pertsonarena, ordezkari egiaztatzen duen agiriarekin batera. Eskatzailea adingabea denean, eskaera guraso edo tutore batek egingo du, eta, horretarako, familia liburua aurkeztuko du.

b) Aurreko 2. artikuluan aipatutako dirulaguntza lortzea eragozten duen egoeretako batean ere ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena (eredu ofizialaren arabera).

c) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Hala ere, eskatzaileak ziurtagiri horien ordezkari berariazko ondorioetarako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango du (eredu ofizialaren arabera), uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 24.4 artikuluekin bat etorritik.

d) Egindako eta/edo lortutako dirulaguntza eskaerei buruzko zinpeko aitortpena, edo beste erakunde edo organismo batzuei xede bera finantzatzeko eskatzea aurreikusten dutenei buruzkoa, erakundea eta kontzeptu horrengatik jasotako edo eskatutako zenbatekoa adierazita (eredu ofizialaren arabera).

e) HABEk homologatutako euskaltegi edo zentro bakoitzaren ziurtagiria, honako hauek zehaztuta:

— Matrikula gisa ordaindutako kopurua.

— Eskoletara joandako ehunekoak, guztira zenbat ordu eman diren eta ikasleak benetan zenbat ordu jaso dituen adierazita.

— Matrikulari dagozkion eskola egunak eta jasotako eskola orduak.

— Egindako maila edo mailak eta horiek gainditu edo ez gainditu izana.

Eskaera eredu ofizialak eta artikulua honetan eskatzen diren gainerakoak interesdunen eskura egongo dira udal bulegoetan.

Aurkeztutako eskabidea edo aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo zuzendu daitekeen beste akatsen bat badu, eskatzaileari eskatuko zaio bi egun baldioduneko epean zuzen dezala edo beharrezko agiriak aurkez ditzala, eta adieraziko zaio, bestela, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela.

**5. artikulua.— Dirulaguntzak emateko eta horien zenbatekoa zehazteko irizpideak**

Dagokion urterako Aurrekontuak Betearazteko Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik, dirulaguntzen zenbatekoa honako arau hauen arabera zehaztuko da:

— Errola: Ikastaroak irauten duen bitartean Zambranako erroldatuta egotea.

— Asistentzia: Ikastaroko asistentzia % 80koa izan behar da. Betebeharren eta gaixotasunen justifikazioak agintaritzaren organoak egingo ditu.

— Aprobetxamendua: Ikastaroari dagozkion azpi-mailak gainditu behar dira.

— Ziurtagiria: Interesatuak udaletxean aurkeztu behar du adierazitako datuak jasotzen dituen ziurtagiria, euskaltegi arduradunak sinatuta.

– Zenbatekoak:

1) Iraupen luzeko langabeei matrikularen ehuneko 100 ordainduko zaie, betiere beren egoera justifikatzen badute eta aipatutako baldintzak betetzen badituzte. Onuradun bakoitzak gehienez 300 euro jaso ahal izango ditu.

2) Gainerako kasuetan, matrikularen ehuneko 70 ordainduko da, betiere beharrezko baldintzak betetzen badira. Onuradun bakoitzak gehienez 200 euro jaso ahal izango ditu.

3) Aurrekontuko esleipena baino eskabide gehiago egonez gero, dirulaguntzak jaso beharreko ehunekoetara egokituko dira, konturako ekarpenak hainbanatuta.

#### **6. artikulua.— Instrukzioa eta ebazpena**

Dirulaguntzak norgehiagoka prozedura bidez emango dira. Alkateak izango du prozedura ebazteko eskumena. Instrukzioa udal idazkariak egingo du. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko gehienezko epealdia ezin da izan sei hilabetetik gorakoa. Gehieneko epea igaro bada eta interesdunei ebazpenaren berri eman ez bazaie, eskaera administrazio isiltasunagatik gaitzetsi dela ulertuko da. Prozeduraren ebazpena interesdunei Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 58. artikulua-rekin bat etorritik jakinaraziko zaie. Ematen den ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dakioke udal honetako alkateari, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daiteke Gasteizko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegian. Hori guztia urriaren 1eko 39/2015 Legearen 116. eta 117. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoaren arabera.

#### **7. artikulua.— Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin**

Aldi bereko beste dirulaguntza batzuk lortu ahal izango dira, betiere 5. artikuluan aurreikusitako laguntzaren gehieneko muga gainditzen ez bada. Kasu horretan, eman beharreko zenbatekoa murriztuko da, edo sobera ordaindutako zenbatekoak itzuliko dira, dagokionaren arabera.

#### **8. artikulua.— Dirulaguntzak ordaintzea**

Deialdia ebatzi eta ebazpena interesdunei jakinarazi ondoren, onartutako zenbatekoak gehienez ere hilabeteko epean ordainduko dira, arauzko izapideak egin ondoren.

#### **9. artikulua.— Datuen babesa**

Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko Legean ezarritakoaren arabera (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa), jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datu horiek Euskarazko Dirulaguntzak fitxategian sartuko direla, eskaeraren ondoriozko ekintzak kudeatzeko eta izapidetzeko helburu bakarrarekin. Edozein unetan egikari ditzakezu legeak zehazten dituen datuetara iristeko, datuak zuzentzeko, datuak ezabatzeko, transferitzeko eta aurka egiteko eskubideak.

Zambrana, 2020ko otsailaren 3a

*Alkate-lehendakaria*

*AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERÁSTURI*

I. ERANSKINA / ANEXO I  
EUSKARA IKASTEAGATIKO DIRULAGUNTZAK  
SUBVENCIONES POR ESTUDIOS DE EUSKERA  
DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA  
SOLICITUD PARA TOMAR PARTE EN LA CONVOCATORIA

## Eskatzailearen datuak / Datos del/a solicitante

Izen-abizenak / Nombre y apellidos		NAN / DNI	
Helbidea / Dirección		PK/CP	Herria / Localidad
Telefonoa / Teléfono	Faxa / Fax	Posta elektronikoa / Correo electrónico	
Dirulaguntza ordaintzeko banku datuak (IBAN) / Datos bancarios para el pago			

## Ordezariaren datuak / Datos del/a representante

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	
Helbidea (eskatzailearena ez balitz) / Dirección (en caso de ser distinta a la del/a solicitante)	
NAN / DNI	Telefonoa/ Teléfono

## Erantsitako dokumentazioa / Documentación que se adjunta

1.
2.
3.
4.

II. ERANSKINA / ANEXO II  
EUSKARA IKASTEAGATIKO DIRULAGUNTZAK  
SUBVENCIONES POR ESTUDIOS DE EUSKERA

## ARDUREN AITORPENA / DECLARACIÓN RESPONSABLE

Izen-abizenak / Nombre y apellidos	NAN / DNI
------------------------------------	-----------

## ARDURAZ AITORTZEN DUT / DECLARO RESPONSABLEMENTE

Ez nagoela dirulaguntzak jasotzea eragozten duen ezintasun egoeran, indarrean dagoen legediak xedatzen duenaren arabera eta, zehazki Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 13.2 atalean xedatzen diren egoeratan.	Que no me hallo incurso/a en ningún supuesto que impida obtener la condición de beneficiario/a de subvenciones según legislación vigente y , en particular, de los supuestos previstos en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003 General de Subvenciones.
Xede berbera finantzatzeko beste dirulaguntzarik eskatu/ jaso ez dudala eta eskatzea/jasotzea aurreikusten ez dudala.	Que no he solicitado/obtenido ni preveo solicitar/obtener otras subvenciones para financiar el mismo objeto.
Xede berbera finantzatzeko hurrengo dirulaguntzak eskatu(ko) edo jaso(ko) ditudala:	Que he solicitado/obtenido o preveo solicitar/obtener las siguientes subvenciones para financiar el mismo objeto:
Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko bete-beharretan egunean nagoela.	Que me hallo al corriente de las obligaciones fiscales y con la Seguridad Social-.

	Erakundea / Entidad			Zenbat / Importe (€)
A				
B				
C				

Data / Fecha .....